

Garun artean



UXUE APAOLAZA



PAULA ESTÉVEZ

Nik ere badut disko eta liburu bilduma etxean, ez larritu”, jartzen zuen apalategia izan zitekeena estaltzen zuen maindire batean itsatsitako folio batean. Berria Aretorako Eneritz Furryaren bideo bat zen. Ni ere fijatzen naiz etxetik egiten diren grabaketa/argazkietan pertsonaien atzealdeak dekoratzen dituzten liburuz betetako apalategietan. Liburuak lekuz aldatzen dituzte ale jakin batzuk ikus daitezen (eta ez beste batzuk)? Non jarriko nintzateke ni? Nire liburuak kaxetan daude, ez etxe bakarrean, baina kaxetatik kanpo ere ezingo nuke plano handiegirik bete, eta noski, ezingo nuke ikuslea seduzitzeko aukeraketarik egin. Izeba-osaben etxera joan beharko nuke.

Horrek ez du esan nahi gutxi irakurri dudarik. Liburu asko-asko ez ditudala baizik, jabetza fisikoan. Irakurtzea, izatez, biziraupen kontu bat ere izan da nire bizitzako uneren batean. Eta hainbat liburutegitara eta liburutegitan ematen nituen buelteak, Gasteizko Ignacio Aldecoara kasu, nire eguneroko ibilbideen ehuneko handia hartzen zuten. Madrilen bi txartel nituen, hiriko liburutegikoa eta erkidegokoetakoa; bakoitzean hiru liburu har zitezkeen aldi berean. Liburuzko korridoreetan ibili naiz hona eta hara,

makurtuta, eserita, ia etzanda, zorabiatuta azkarregi jaikitzeagatik, C-tik S-ra, berriro C-ra, B-ra, eta zein utziko dut, hau ala hau; aurretik gozatutako ahotzak, lehen paragrafo batek paparretik heldu eta irentsarazi didana, argialetxe jakin batekoa delako hartutako liburua, idazle beraren sei, bi irakurtzeko, laugarren aldiz hasiko dudana nobela, irakurri ez dudala esatea lotsa ematen didan klasikoa, atzo irratian aipatu zutena, beti hartuta egoten zen nobedadea, *zergatik-bai* eramandako eta bestela inoiz irakurriko ez zenukeen goxokia...

Nire gurasoen etxea ez zen irakurle etxea, baina ahalegindu ziren, nolabait, gu irakur zaletzen (13 urterekin *Sargori* ekarri zidaten Durangotik, ipuinak zirenez, haur- edo gaztetxo-literatura, eta desegokitasun hark bizitza aldatu zidan), baina ikastola (*Obabakoak* izeneko altxor bateko bitxiak fotokopiatuta ekartzen zizkigun andereñoa) eta liburutegiak izan ziren, bereziki, biziora eraman nindutenak. Eta ezingo niokeen bizioari eutsi, nire beharren mailan, eskura liburutegi publikorik eduki ez banu, nahikoa diru ez baitut inoiz izan (ezta izango ere, horrela jarraitzen badut).

Liburutegi publikoei esker gure ahalmen kapitalistatik askoz harago irakurri

dugu askok. Gutxi askok. Eta ez genituen behar inoiz lehenago irakurri ez bage-nu bezala hitz egiten ziguten liburuak, ez da hori aberastu nauen demokrati-zazioa. Liburutegiaren miraria bestea da: sublimeena, iraultzaileena, sotilena, erudituen... gure esku dago. Aristokrata naiz liburutegian, beste mundu batzuetan sinesten duen fededun ateo bat. Nire kasuan, estutasun absurdo batean bizitzetik libratzeko ematen den aholku hori, “hartu zeure burua zaintzeko denbora”, “joan liburutegira” da. Noizbait “erakutsi zure liburutegia” eskatuko balidate, liburutegira joan beharko nuke. Nire bizitzako momentu zoriontsuene-tako asko liburutegian jaio dira, gure espeziekoa izatea zaila ez zaidan leku bakanetakoan. Eta liburutegian hain la-sai arnastearen arrazoietako bat da har-tuko dudana ez dela nire etxean zabor heredagarri bilakatuko, han literaturak ez du inolako pisurik; ezer ez da nirea han, liburuan itsatsitako fitxan ikusten ditugu zигilatutako datak, bakarti bate-tik bestera, garun arteko harreman isil bat. Nire ingurune materiala begiratuta, inork ez luke antzemango nire altxorra zein den: eramaten nauten lekura era-manda, liburutegi bat daramat burezur barruan ezkatututa. ●